



Udaberriarekin odola aldatzen



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ZERBITZUA
KUDEAKETA
ADMINISTRAZIOA
30 urtetik gorako esperientzia

943 200 358

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



JENDEA HARTZEKO
(aurrez-aurre eta telefonoz)
09:00-14:00 / 15:30-19:30

Ford Focus-aren 20. Urteurrenaren **BEREZIA**

20 UNITATE LIKIDATZEN DITUGU
APARTEKO PREZIOAN

14.980€ + 7 urteko
Garantia

Baliatu aukera!
MARTXOAREN 31ra ARTE BAKARRIK



Eskaintza ballagarria martxoaren 31ra arte edo stock-a agortu arte. Promozioa ezin zaie gehitu bestelako eskaintza edo deskontuei. Zergak barne. Matrikulazio-gastuak ez daude barne. Ford credit-ekin finantziatuta. Galdetu baldintzak.



FORD KONDIA
Otaola Etorb., 22 · EIBAR
T. 943 202 091

ZIORLA AUTOAK
Santamaña Auzoa, 19 · IURRETA
T. 946 815 569

www.fordkondia.com

...eta kitto!-ren
itzulpen
zerbitzua

**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.**



- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.com

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALA:
J.L. Gorostegi

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– Espainiar poliziarik ez dugu nahi –

Egun hauetan prentsan irakurri ahal izan dugu Euskal Herrian biztanleko dugun polizia kopurua European dagoen altuenetarikoa dela. Eibarren bertan, egun, Guardia Zibilen koartela eta Ertzantzarena ditugu. Orain, eta PNVri esker, polizia nazionala ere izango dugu gure herrian, DNla bertan egingo dutenez polizia nazionala egintza hori “zaintzera” etorriko da.

Eibarko Sortutik diogu ez dugula espainiar poliziarik gure herrian nahi, ez eibartar guztiona den udal eraikinean, ezta herriko beste edozein tokitan ere. Izan ere, gure iruditegi kolektiboan asko dira

polizia nazionalak eta guardia zibilek zizelkatuko gertaerak, eginiko mehatxuak, eurengandik jasotako torturak.

Ez da garaia Eibarrera espainiar poliziarik etortzeko, aitzitik Eibarren eta Euskal Herrian behar duguna desmilitarizazio prozesua abiaraztea da, Eibartik eta Euskal Herriitik espainiar indar polizialek alde egin behar dute, eta egun goardia zibilek okupatzen duten lur eremua eibartarroi bueltatua behar du izan.

Sortu Eibar

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LEZ.- Legez, bezala, moduan. “Guri erakutsi deskuen lez, mundua biribilla”.

LEZTXE/LETXE.- Bezalaxe. “Etorri nintzan leztxe, hutsik juango naiz mundu honetatik”.

LEZKO/LEZKOTXE.- Bezalako, bezalakoxe. “Donostian lezko hariatzia Hondarrabixan”.
“Donostian dendak Parisen lezkotxiak”.

astean esanak

MENDI-LASTERKETEN INGURUAN
LAU IRITZI:

“Hausnarketa egin behar da: bada mugarik? Lasterketa guztiak onartu behar dira? Uste dut ez dela pentsatu”
(TXEMA HERNANDEZ, KRISTINAENA)

“Masifikazioa dago, eta joaten direnak jakin beharko dute leku babestuetan neurriak hartu behar direla”
(XABIER PETRIENA, (BASOZAINA)

“Leku babestu batean, 1.000 edo 2.000 partehartzaile gehiegi da. Babestutako tokiak ezin ditugu nolana ere erabili”
(IVAN ORTUZAR, EKOLOGISTA ETA KORRIKALARIA)

“Kirola osasungarria da jendearentzat, eta pena da pertsona batzuek hainbeste oztopo jartzea”
(OHIANA KORTAZAR, MENDI-KORRIKALARIA)

“Errefuxiatuak Norvegiara joan nahi du, hango hizkuntza ikasi beharko duela jakinik; eta jakitun norvegiarrek ez diotela aterik zabalduko. Nortasun kontuak horren likido bihurtu diren sasoiotan, euskaldunak aspaldi dakarren likidotasuna gogora ekarri zuen Antton Lukuk `euskara ikasten duzu, ziup, automatikoki euskaldun zara, ongi etorri klubera eta puntu´ esaterakoan. Iheslariak alemana, suediera edo espainiera ikasten dituelarik, ez da aleman, suediar edo espainiol bihurtzen. Londresen ingelesa gidari izateko da, ez ingeles edo britainiar bihurtzeko. Baina euskara ikastea euskaldun zara. Eta auzia orduan ez da ea euskara beharrezko den euskal herritar izateko, baizik eta ea euskaldun izatea ez ote den aski euskal herritar izateko, ez ote den berme, eta euskaldunari herriartasuna ukatuko diozun”

(URTI URRUTIKOETXEA, IDAZLEA)

“Pertsona batek Twitterren iritzia eman, eta zentsuratua izateko aukera izan dezake, eta beste batek ez, nahiz eta bi diskurtsoek izan dezaketan iraintzeko gaitasun bera. Ez dago adierazpen askatasunik. Dagoena da esparru bat, botereak markatzen duena. Esparru horretatik ateratzea oso zaila da. *Ocho apellidos vascos*-ekin haserretu zirenei esaten zitzaion umorea dela, eta edozer esateko aukera dagoela. ETB1eko saioarekin, berriz, adierazpen askatasuna desagertu da, baita umorearen inguruko ikuspuntu on guztiak ere. Ikusi behar dena da zenbateraino den lotsagabea dagoen normarekiko. Gero eta lotsagabeago eta subertsiboago izan hegemoniarekin, orduan eta arriskutsuago, eta zentsura gehiago jasoko duzu. Ez da irain kontua, lotsagabekeriarena baizik”

(UXOA ANDUAGA, SOZIOLOGOA)



UNAI ARTETXE

Seirehun eta berrogeita hamabi

652. Irakurri eta berehala ahaztuko zaizun zenbakia. Seirehun eta berrogeita hamabi. Esanahi handirik gabeko hiru digituko zenbakia. Bat. Bi. Hiru. Lau. Seirehun eta berrogeita hamabi. Mutilak eta neskak. Neskak eta mutilak. Ilehorriak. Beltzaranak. Zuriak. Adin guztietakoak. Haurrak. Umeak, Nerabeak. Bat. Bi. Hiru. Lau. Seirehun eta berrogeita hamabi. Gutxienez, 652 dira azken urtean Sirian hildako umeak, UNICEFen arabera. Guzti horien herena, eskolan edo inguruetan akabatutakoak. Zortea alde izan dutenek liburua fusil batengatik aldatu eta borrokara joatera behartu dituzte. Patu krudela beraiena. Seirehun eta berrogeita hamabi. Zenbat izango ote dira orain sei urte hasitako gudan hil dituzten umeak? Save The Childrenek eman du kopurua. Gutxienez hamasei mila. 16.000. Eibarko biztanleriaren erdia baino gehiago. Ipurua futbol zelaia hiru-lau aldiz betetzeko adina ume, zenbakiakin arazoak ditugunontzako, Yemenek bizi duen gerra zibilean 1.400 ume hil omen dituzte jada. Mila eta lauhun. Afganistanen, iaz, mila inguru. Urtero urtero milaka dira Mediterraneo itsasoa zeharkatzeko ahalegina egiten duten umeak. Askok, gainera, guraso gabe, euren bakardadean. Bidean zenbat geratu diren, aldiz, ezin jakin, ia ezinezkoa baita itotakoen gorpuak berreskuratzea. Baina guk gurera jarraituko dugu, atek itxita, infernutik zerurainoko hormak eraikiz, epeltasunean, goxo goxo. Bat. Bi. Hiru. Lau. Azkenak izan daitezten; buruz ondo ikasi beharko genituzke kopuru horiek guztiak.

Hondakiñak gaika biltzeko zakarrontzi barrixak

Herriko hainbat tokitan hondakiñak gaika biltzeko zaborrontzixak ipintzen hasi dira. Udalak 25 zaborrontzi barri jarriko ditu Toribio Etxebarria, Zuloagarren, Untzaga plaza, Txal-txa Zelai, Urkizu, Berdintasunaren Pasialekua, Torrekua, Legarre eta San Andres pasialekuan. Kaleko zaborrontzi barri hónek lau kompartimentu dittue, kolore diferentiek bereiztuta, holan jendiak zaborra dagokixon tokixan bota eta hondakiñak gaika sailkatzeko aukeria izan deixan: urdiña paperarendako, horixa ontzi-xendako, marroia hondakin organikuendako eta grisa bestelako hondakin edo erre-fuxarendako.



Dendarixen logotipo-lehiaketia


Eibarko Dendarien Elkarteak logotipo-lehiaketia antolatu dau. Logotipuak "Nik Eibarren erosten dot" / "Yo compro en Eibar" esaldixa euki biharko dabe idatzitta (hizkuntza bixetan), 30x30 zentimetroko neurrixa eta asocelebar@gmail.com helbidera bialdu biharko dira, egilliaren datuekin batera. Apirillaren 6ra arte jasoko dittue lanak eta irabazliarendako sarixa 300 eurokua izango da.

asteko
389.394
datua

euroko inbersiñua egingo dabe 2018xan Egogain Gerontologikuan menpekotasuna dakenendako 18 plaza eskindu ahal izateko. Diputaziñuak legegintzaldixaren amaieran herri diferentietako egoitza eta zentruetan 300 plaza barri egotia dago aurreikusitta.

Ekingunereren pintxo-pote tematikua 30ian

Modu egokixan planifikatzen ikasi nahi dabenendako pintxo-pote tematikua antolatu dau Ekingune alkartiak hillaren 30erako. Jose Manuel Torresek, EITBko "El gran salto" programaren coach-a eta "Planifícate con las 7Ps de la planificación" liburuaren egillia, arrakasta mailla personalian zein profesionalian lortzeko lagungarriak diran 7 pauso errazekin osatutako metodua azalduko dau, "baitta enpresa maillan eta bizitzan dittuzun helburuak planifikatu eta lortzeko modua hobetzeko kontzeptuak, tresnak, istorioak eta estrategixak be". Armerixa Eskolan egingo daben ekitaldixa 19:00etan hasiko da, aurkezpena eginda eta 19:30xetan hitzaldixa hasiko da. 21:00ak aldera hasiko dan eztabaida/pintxo-potiarekin agurtuko dabe jardunaldixa. Izena emoteko ekingune@ekingune.com helbidera idatzi leike edo bestela 943 208 420 telefonora deittu.





Ibon Muñoa 800 km-tara
Kordoban

EGIN DITZAGUN 800 KM DENON ARTEAN
 #StopDispertsioa



Dispersiñuaren kontrako mendi ibilaldixa

Eibarko Sarek antolatuta, domekarako mendi-urteeria antolatu dabe "#Stop-Dispertsioa / Ibon Etxera!" kanpaiñaren barruan, Ibon Muñoa preso eibartarra, Cordoban, etxetik 800 kilometrora dakela salatzeke. Goizeko 08:30xetan Urkizutik abiatuko dira Kalamuara, handik Arratera juateko. Nahi dabenak Usartzan 10:00etan ibilaldixarekin bat egiteko aukeria izango dau. Amaitzeko, Arraten ekitalditxo bat egingo dabe, 12:30xak aldera.

Bigarren eskuko azokia ipiñiko dau bixar Gure Esku Dagok

Eibarko Gure Esku Dago taldekuak bigarren eskuko azokia antolatu dabe bixarko, ekimenetarako diru pixka bat lortzeko asmuarekin. Goizeko 11:00etatik aurrera Untzagan zabalduko dabe azokia eta egun osuan han egongo dira, arratsaldera arte. Erabillittako gauzeekin batera eurak diseiñautako poltsak be egongo dira salgai, 7 eurotan. Bestalde, maiatzian egingo dan galdeketa antolatzeko biharrian dabiz eta botaziño egunian laguntzeko prest dagan jendia bihar dabe, bestiak beste mahaixetan egoteko. Laguntzeko prest egonez gero taldeko kideiekin kontaktuan ipintzeko eskatu dabe, martitzenetan Arrate Kultur Elkartearen egitten daben aseroko billerara juanda edo gureeskudago.eibar@gmail.com helbidera idatzitta.



autuan

1987-XAN JAIXOTAKUAK

1987xan jaixotakuak maiatzaren 6xan alkartuko dira, alkarrekin bazkaltzeko eta eguna jai giruan emoteko: 12:00xetan Untzagan alkartu, pañueluak banatu eta argazkixa egingo dabe. Ondoren, 12:30xetatik 14:45etara trikipoteuan ibilliko dira eta 15:00etan Unzaga Plaza hotelian bazkalduko dabe. Bazkalostian, barriz, 17:30xetatik 19:30xetara musikia eukiko dabe, Karbanen eskutik. Juan nahi dabenak 50 euro sartu biharko dittu Euskadiko Kutxako kontu honetan: ES94-3035- 0023 97 0230090307.

IPURUAKO KIROLDEGIXA

Eibarko EH Bilduk Ipurua kiroldegiko instalaziñuen "egoera tamalgarrixa" salatu dau, horretarako arrazoia Eibarko Kirolaren Plan Estrategikuaren atzerapena ete dan galdetziatz gain: "Ipuruako kiroldegixa etenbarik ari da funtzionatzen 1982xan ireki zanetik eta 35 urte pasa eta gero instalaziño asko zaharkituta eta lagata daguazela salatu nahi dogu".

Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p> <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p> <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p> <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p>	

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
Tel: 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirugia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Foto-depilazio
8) Pediatria	Unitatea
9) Psikiatria	18) Ginekologia BERRIA
10) Neurologia	19) Psikologia BERRIA

Iker Amutxastegi eibartarra hil zan astelehenian Azkoitiko istripuan

Astelehen arratsaldian Azkarate gaiñian izandako istripu anitzean artaziarena egin eban kamioia eta lau auto nahastu ziran eta, horren ondorioz, hiru lagun hil ziran, tartian Elgoibarren bizi zan Iker Amutxastegi 41 urteko eibartarra. Oin dala gitxira arte Rodisa enpresan egitten eban biharra, Azkoitiko Bernardo Ecenarora kanbixua egin eban arte eta hiru seme-alabaren aitta zan. Eibarko Txirrindularitza Elkarteko Loren Amutxastegiren semia zan eta

bera be kirol horrerri lotuta egon zan Azpiru Inmobiliaria zaletu maillako taldia zuzentzen. Horrez gain, Eibar Foball Taldeko jarraitzaillien Eskozia la Brava taldeko kidia be bazan. Istripuan hildako beste bi lagunak Errumaniako anai bi ziran eta, zauritutako beste bost lagunen artian bat larri dago. Arin zauritutakuen artian gidatzen ikasten eguan 22 urteko neska eibartarra be badago. Isitripua zelaz gertatu zan ikertzen dihardue.



Istripua Azkarate gaiñian gertatu zan eta hiru lagun hil ziran bertan.

Ardantzako etxegabetziaren inguruko azalpenak emon dittue

Aurreko asteko barixakuan Ardantza kalia alokairu sozialeko etxe batian bizi zan famelixia etxetik etara eben, Alokabideri dirua zor zetsala eta. Autuaren inguruan hainbat azalpen emoteko asmuarekin, arratsalderako idatzixa emon eben argittara Stop Desahucios Debarbarrena/Kaleratzeak Stop plataformakuak. Diñenez, "2016ko urrian euki genduan kasu zail honen barri, plataformarengana laguntza eske etorri ziranian. Kaltetutako famelixari bihar dan moduko arreta eskindu jakon, kasuaren azterketa sakona egin genduan, euren egoera ekonomikua zein zan azaldu zeskuen eta, horren ostian, eurekin batera Donostiara, Alokabidera jua giñan, arazua konpontzen eta urtenbideren bat aurkitzen laguntzeko. 2016ko azaruan arazuari konponbidia emoteko akordixua lortu zan eta, horren arabera, ezarri ziran epe batzuren barruan hainbat ordainketa egittia adostu eben. Gauzak holan, gure bitartekari lana amaitutzat emon genduan". Halanda be, kasua atzera be plataformakueri eruan zetsen oin, martxuan, adostutako akordixua ez dala bete eta Alokabidek etxegabetziari barriro heldu detsala esaten. Azaldutakuen arabera, "informaziño hau berandu, azken orduan aillegau jaku, adostutakua ez betetzarren egoeria lehen baiño larrixagua darian, gaiñera. Gauzak holan egonda, arazuari urtenbidia emoteko modurik egokixena famelixaren egoera larrixarekin zerikusixa daken Instituziño/Era-



Proega Eguna edarto ospatu eben zapatuan

Aurreko zapatuan, Jende Xumea PROYDE-PROEGA GKE-ren barruan daguan gazte kooperantien taldiak zozketa solidarixua prestatu eban eta honek dira zenbaki irabazliak: 88 (1. sarixa), 277 (2. sarixa), 259 (3. sarixa), 97 (4. sarixa) eta 87 (5. sarixa). Irabazlien artian egonez gero, antolatzailliekin harremanetan jarri Facebook bidez edo WhatsApp-a bialduta (68863710). Martxuaren 24rako irabazlerik agertu ezian, emon barik gertzen diran sarixak banatzeko zozketa egingo da barriz. Beraz, ez bota rifarik (eta, bota badozue, jarri kontaktuan antolatzailliekin zekazuen zenbakixa bialduta, zozketa barriro egin baiño lehen).

Boliviara juango diran Jende Xumea taldeko bost gazterendako dirua batzeko egindako zozketa goiz osuan ospatu zan Proega Egunaren harira antolatu eben eta, horrekin batera, alkartasun azokia, Bidezko Merkataritza eta Isasiko Izartxo taldiaren eskutik umiendako jokuak osatu eben programia.



kundieri lehenbailehen horren guztiaren barri emotia izango zala pentsau genduan, holan konponbideren bat billatu ahal izateko, eta holan egin genduan". Halanda be, hortik aurrera ezin leikie gehixago egin eta gertatutakua asko sentitzen dabela esatia baiño beste aukerarik ez jakue geratu.

Bestalde, famelixia etxetik kaleratzian ertzaiñekin batera udaltzaiñak egotia gaitzetsi eban Eibarko Bilduk, baiña gertatutakuen inguruko azalpenak emoteko astelehenian egindako billeran "beste administraziño batek hala eskatu ebalako" jua zirala azaldu eban alkatiak.



TUTULUMENDI

IDURRE IRIONDO

Lore, Landare eta Zuhaitz azokia egingo da bixar Urkizun

Astelehen goizian aurkeztu eben bixar Urkizun egingo dan VII. Lore, Landare eta Zuhaitz Azoka udaletxian. Aurreko urtiotako bidiari jarraituta, Debemen alkartiak eta Eibarko Udalak alkarlanian antolatutako azokan hainbat ekoizleren eskintza bertatik bertara ezagutzeko aukeria egongo da. Goizeko 09:00etan hasi eta 14:00etan amaituko dan azokan parte hartuko dabena honek dira: Viveros el Montañes (Tafalla), landare usaintsu eta apaingarriak; Zunoyar Lorategia (Oiartzun), barruko landare apaingarriak; Ortuberri (Iurreta), sasoiako lore eta baratzeako landariak; Urtinea (Usurbil), sasoiako lore eta barruko lore apaingarriak; Aritzkurengo Tienduka (Nafarroa), artisau eran egindako kosmetikak; Semillas Ecologicas (Lasarte), sendabelarrak eta hazixak; Alquimia de Aineto (Aineto Huesca), kosmetikak; Flores Ganchillo, lorekin egindako pitxiak; Gure Lurrak (Gasteiz), sendabelarrak; Aranburu Mintegia (Usurbil), sasoiako lore eta landariak; Antonena (Oñati), sasoiako lore eta landariak; eta Bidezko Merkataritza (Eibar). Horrez gain, 11:30ean umiendako lore-landaketa tailarra hasiko da. Nahi dabena lorontzixak apainduko ditue eta landareren bat landatuko dabe, gero etxera eruan eta zaintzeko aukeria izateko. Antolatzaillien berbetan, "ekoizlien landare eta zuhaitzak zuzenian erosteko aukeria emotiaz gain, azokia anto-



Alberto Albistegi ziñegotziza, Juanxto Ollacino ekoizlien alkatereko ordezkarixa eta Agurtzane Etxaniz Debemenekua aurkezpen ekitaldixan.

lauta lore eta landarien landaketa eta zainketaren inguruko ohi-tturak jende artian zabaltzia be billatzen dogu, belaunaldi batetik bestera asko galdu da eta".

Euripian abiatu ziran eibartarrak Berdintasunaren Aldeko Martxan

Domeka eguardixan abiatu zan Eibarko Genero Berdintasunaren Aldeko Lehen Martxa, Untzagan talde argazkixa etara ondoren. Eurixa egin arren jendia ez zan kikildu eta 400 lagun baiño gehixagoren partehartziarekin ekin zetsen andragizonen aldeko berdintasunaren aldeko martxari. Argazki-bilduma etakitto.eus helbidian, mediatekan dago ikusgai.



Eibarko Dendarien Elkarteak

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

1987ko otsailaren 13an, estatutuak formalizatu ondoren, jaio zen Eibarko Dendarien Elkarteak, Eibarko merkataritza indartzeko eta dinamizatzeko asmoarekin. Elkartearen xede nagusia, promozio eta publizitate jarduerak eginez, herriko merkataritza sustatzea da. Horretaz gain, zerbitzurik onena eta merkataritza tradizionalak ahalbidetzen duen gertutasuna eskaini nahi zaie bezeroei.

2003an elkartearen ordainketa-txartela jarri zuten martxan. Gaur egun munduko edozein lekutan erabil daitezkeen VISA da, eta dendari eta bezero guztientzako abantaila ugari ditu.

Ekintza nagusiak

- Elkartearen txartelaren bidez, ordainketak 3 hilabetera arte atzeratu daitezke, interesik ordaindu gabe. 12 hilabetera arte ere atzera daitezke.
- Fidelizazio modu berria daukate. Elkartearen txartelarekin ordainduz gero, 70 denda inguruk %2 eta %5 bitarteko deskontua eskaintzen dute ondorengo erosketan.
- Urtean zehar erosketa-txekeak, gabonetako otarrak... zozketatzen dituzte; zinerako 2 euroko deskontu-bonoak banatzen dituzte; bezeroek parkinga doan daukate; gabonetan barraketarako eta Txikipark-erako bonoak banatzen dituzte... Aurten "Nik Eibarren erosten dot" logotipo-lehiaketa jarri dute martxan.

helbidea: Urtzaile, 1 kanp. 12. lokala
telefonoa: 943 121175
e-maila: a.c.eibar@euskalnet.net
 asoceibar@gmail.com
 eibarcomercial.org

webgunea:



Urtean zehar era askotako zozketak antolatzen ditu Dendarien Elkarteak.

Nalua Eibarko feministak

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

NALUA talde feminista 2014. urtean sortu zuten Eibarko emakume gazteek. Aurretik martxan zegoen ATAKAPA talde feminista desegin zen momentuan, hutsune handia sumatu zuten eta herrian zeuden beharrek bultzatuta erabaki zuten taldea eratzea.

Helburu nagusi bezala, eibartar feminismoarantz bideratzea dute, erasoak salatuz (kaleak hartuz edo sare sozialen bitartez) eta umorez eta jai giroan. Honez gain, emakumeek egunerokotasunean dituzten arazo, beldur edota zailtasunen inguruan hausnartzeko espazio seguru bat sortzea ere bilatzen dute.

Ekintza nagusiak

- Herrian gertatzen diren eraso sexista, matxista, transfobo edota lesbo-homofoboak salatzea.
- "11 emakume, 11 bizipen, borroka 1" Eibarko emakumeen inguruko dokumentala eratzea.
- Mahai-inguruak, hitzaldiak,...
- ILARGI FEST emakumeen musika taldeak sustatzeko jaialdia.
- Herriko festetarako protokoloa sortzea, jaien antolaketan parte hartzea,...

helbidea: Zezenbide kalea, 9 (Andretxea)
telefonoa: 695 75 85 44
e-maila: nalua.feministak@gmail.com
harremanetarako: nalua.feministak@gmail.com
Facebook: NALUA Eibarko Feministak



Nalua-ko kideak.

Maixa eta Bar Nuevo III. Gilda Lehiaketako IRABAZLEAK

Ostalariak eta Dendariak Berbetan programaren barruan "Euskeraz Primeran" III. Gilda Lehiaketa izan genuen aurreko asteko eguazten, eguen eta barixakuan. Aurreko edizioetan bezala, arrakasta handia izan du lehiaketak, 25 tabernak hartu dute parte, eta hiru egun horietan jende mordoxka ibili da tabernetan, gildak dastatzen. Aurten are zailagoa izan da epaimahaia osatu duten Mireia Alonso, Ruben Etxaniz eta Josu Mugerzarentzat erabakia hartzea. Parte-hartzaile kopuru altua eta batez ere aurkeztutako lanen maila ona azpimarratu nahi izan dute hirurek. Adierazi dutenez, "urtetik urtera eboluzio nabarmena egon da. Aurkezpen zainduagoak, sormen lan handiagoa... Txalotzekoa da ostalariak hartzen duten lana lehiaketan parte hartzeko". "Maixa" izan da epaimahaikideentzat gildarik onena aurkeztu duen taberna, aurkezpen, sormen zein zapore irizpideetan notarik altuena jaso baitu. Herritarren artean, berriz, Urkiko "Bar Nuevo" taberna izan da irabazlea. Martitzenean jaso zituzten sariak Maixako David-ek eta Nuevoko Iraitzek Ruben eta Mireia epaimahaikideen eskutik. 150 euroko sariaz gainera, diploma bana ere jaso zuten. Guztira 2.000tik gora lagunek eman dute botoa eta horien artean zozketatu dugun bi lagunendako menu berezia Kantabria jatetxean Ainhoa Errastiri egokitu zaio.



Ruben Etxaniz, Josu Mugerza eta Mireia Alonso izan ziren epaimahai eta ez zuten lan erraza izan azken erabakia hartzeko.



Ainhoa Errastik eguaztenean jaso zuen saria, Kantabriako Lorea eta bere semeekin eskutik.



Bar Nuevoko Iraitzek eta Maixako Davidek martitzenean jaso zituzten sariak.



Iker Amutxastegi Fernandez

**Zure lagunak ez zaitugu ahaztuko.
Beti gure bihotzean.**

Rodisako lankideak





osasun DOSIAK



Iñaki elortza
BOTIKARIA

Palma olioia, polemikaren erdian

Elikagaien etiketatze legea aldatu denetik, lehen "olio begetala" irakurtzen genuen leku askotan orain "palma olioia" irakurtzen dugu. Honek alarma eta polemika piztuarazi du. Alde batetik osasunarentzat kaltegarria delako, begetala da bai, baina ez osasuntsua. Bere konposizio kimikoaren oinarrian azido palmitikoa dago eta honek bihotzarentzat arriskua, gantz biszerala eta minbizi



arriskua areagotzen dituela ikusi da. Bestalde bere ekoizpen prozesuan erabiltzen diren tenperatura altuek ere beste elementu arriskutsu batzuk sortzen dituztela ikusi da, glizidola adibidez.

Industriak koipe honen erabilera defendatzeko emakume esnean ere azido palmitikoa dagoela argudiatzen du. Ikerketa sakonek aldiz, estruktura kimikoan desberdintasunak aurkitu dituzte (beta-palmitikoa alfa-palmitikoaren ordez) osasunean eragina guztiz desberdina dela frogatuz.

Bestetik, palma olioaren ustiapena tropikoko baso-soiltzearekin eta animalia desberdinen ekosistemaren sunsiketarekin (orangutanak adibidez), erlazio-



natuta dago eta ez da jasangarria. Neurri handi baten hemen ekoiztutako elikagai bati palma olioia gehitu nahi badiogu hau Tailandia edo Indonesiatik ekarri behar dugulako, honek sortzen duen karbono-aztarnarekin. Orduan zergatik dago hain hedatua olio honen erabilera? Batez ere izugarri merkea delako, eta baita eskaintzen duen moldakortasun handiagatik ere. Arazorik handiena, umeei bideratutako elikagai gehienetan palma olioia aurkitu dezakegula da.

Feminismoa

Feminismoari buruz hitz egiten denean erantzun negatibo nabarmena gertatzen da: berdintasunaren alde daudela esaten duten zenbait emakumek, aldi berean, feministak ez direla baieztatzen dute, zerbait negatiboa izango balitz bezala. Eta gizon batzuk defentsiban jartzen dira, automatikoki erasotuak sentitzen direlako. Uste dut korrante ideologiko gutxi -edo bat berak ere ez-jasan dutela Feminismoak sufritu duen eraso eta desprestigioa. Jende askok hitzaren

esanahia nahastu egiten du eta matxismoaren pareko negatibitatea egokitzen dio. Feminismoa: Sexuen arteko Eskubideen eta Aukeren Berdintasunaren alde borrokatzen duen ideologia. Diskriminazio Ezaren alde borrokatzen du. Feminismoa Patriarkatuaren aurka dago; bere helburua patriarkatua desagertzea da. Feminismoa ez da Gizarteari buelta eman eta emakumea boterean eta gizona menpekotasun egoeran jarri nahi duen borroka. Sexu, arraza edo maila eko-



Arantza alvarez
SEXOLOGOA

nomiko-soziala dela eta, batzuk besteen gain dituzten pribilegioekin amaitzearen aldeko borroka da. Patriarkatuak ez ditu emakumeak bakarrik menderatzen. Batipat emakumeoi eragiten badigu ere, gainera gizakien arteko gizarte desberdintasuna sendotzen du.

Sexuaren araberako rol zorrotzak betikotu egiten ditu: emakumea bazara konplazientea eta otzana izan behar duzu; eta gizona bazara, ausarta eta gogorra, taldeko alfa matxoa edo ar nagusia. Feminismoak ema-

kumeei zein gizonei enkortetaturik bizitzea eragiten diguten rolen aurka egiten du borroka. Patriarkatuak ez du ahalbidetzen Ferminitate desberdinak garatzea, emakume izateko modu desberdinak izatea, Maskulinitate desberdinak, hots, munduan gizon izateko dauden modu desberdinak ukatzen dituen bezala. Eta horri ere egiten dio aurre Feminismoak.

Ez, feministak ez gara etsaiak; gizarte patriarkala da etsaia. Denontzat.

IRAKURTZEKO: "Feminismoa hasiberrirentzat" Nuria Varela
IKUSTEKO: www.faktorialila.com



HERIOTZA ETA DUELUA denok bizi izan dugun edo biziko dugun errealitatea izan arren, *"heriotzari bizkarra ematen bizi garela"* azaldu digu Elena Iraolagoitia psikologo eibartarrak. Elenak Adindu enpresa sortu zuen orain dela hogeitau urte Eva Perez de Albeniz eta Sonia Ulaziarekin batera. Batik bat nagusiekin egiten dute lan eta, horretaz gain, hitzaldiak eta psikologia alorreko gaiak jorratzen dituzte. Esperientzia Eskolako koordinazioa eramaten dute, eta Ikasten-en urtero hitzaldiak ematen dituzte. Aurten **"Duelua eta mina"**ren inguruan bi saio eman ditu Elenak.



ELENA IRAOLAGOITIA

(Psikologoa):

"Dueluan isiltasunak eta kontaktuak laguntzen dute gehien"

- Heriotza eta dueluaren gaiak tabu izaten jarraitzen du egun?

Galerak eta duelua, momentu batean edo bestean, guztiok bizi behar dugun zeozer da, baina asko kostatzen zaigu horretaz berba egitea. Gure bizitzan transformazioa dakarren zeozer da, markatu egiten gaitu. Transformazioak ez du esan nahi txarrerako denik.

- Nola azalduko zenuke duelua zer den?

Duelua galera edo heriotza baten ondorioz sentitzen dugun mina da. *Dolus* latinezko berbatik dator. Gure bizitzan izan dugun maitasun horren galerraren ondorioa da. Sentitzen dugun min handi hori maitasunarekin lotuta dago. Pertsona hori galdu dugulako baina maitatzen jarraitzen dugulako sentitzen dugu min sakon hori, bihotzeko mina, eta momentu horretan ez gara konturatzen min hori sentitzen dugula bedeinkazio handia izan dugulako gure bizitzan. Duelu-prozesu baten ostean, orduan esaten dugu: *"hain gogorra izan da mina... baina hain handia izan da nire bizitzan izan dudan maitasun hori..."*

- Duelu-fase desberdinak daukela entzutera ohituta gaude.

Niri ez zait gustatzen faseen gai horretan larregi sartzea. Duelua oso prozesu pertsonala da, eta dena dago onartuta eta dena da errespetagarria. Egia da, hala ere, ez dela berdina gaixotasun baten osteko heriotza, bapateko heriotza edo indarkeriaren ondorioz izandakoa. Faktore asko daude hor, baita hildakoaren adina ere. Baina heriotzaren ondoren mina dago beti. Mina errespetagarria da eta sentitzeko eskubidea daukagu. Hasierakoa ezusteko fasea da, ezin duzu sinistu ez duzula gehiago ikusiko. Defentsa mekanismo bat da: min hori dosifikatu egin behar dugu, nolabait esateko. Batzutan haserre fase bat egoten da: pertsona munduarekin, medikuekin, istripuaren eragileekin, Jainkoarekin... haserretzen da. Haserre horrek ematen digu energia hor mantentzeko. Gero, tristura sartzen da bere indar guztiarekin. Eta, apurka-apurka, onarpena dator, energia emozionala beste pertsonengana eta beste interesetara bideratzen dugunean, berriz ere bizitzaren erritmoa hartzen dugu-

nean. Denborak oso pertsonalak dira, bakoitzak bere eritmoa behar du eta hau errespetatu beharra dago.

- Batzuetan dueloak konplikatatu egiten dira...

Dueloa denboran luzatzen denean eta pertsona horrek ezin duenean "bizitza normala" egin (ezin da ohetik altxatu, lanera joan...), iraganarekin oso obsesionatuta badago... laguntza behar duen seinale da, eta ez da beldurrik izan behar profesionaleri laguntza eskatzeko.

- Nola lagundu prozesu horretan dagoen pertsona bati?

Hitzak askotan soberan daude. Kontuz laguntzeko asmoarekin esaten ditugun gauzekin: *"bizitzaren legea da"*, *"hobe da horrela, orain deskantsatuko duzue"*, *"zu indartsua zara, eta irtengo zara"...* *"Denborak dena sendatzen du"...* Momentu gogor horietan horrelako gauzek ez dute laguntzen. Pertsona horrek behar duena errespetatu da, konpartitzea. Eta gehien laguntzen duena isiltasuna eta kontaktua da.

- Negar egiteak laguntzen du halakoetan?

Negarrak laguntzen digu baretzen, gure sentimendu guz-

tiak ateratzen. Inoiz ez diogu lagunduko *"ez egin negar"* esanez. Entzutea ere oso garrantzitsua da: pertsona horrek galdu duenari buruz hitz egiteko eta sentimenduak adierazteko beharra dauka, eta guk hitz egitera gonbidatu egin behar dugu. Argazkiak ikustea ere oso terapeutikoa da. Batzuetan gerta daiteke pertsona hori oso obsesionatua egotea, eta guk lagundu egin behar diogu hortik ateratzen. Bakarrik egoteko momentuak errespetatu egin behar ditugu, hausnarketa eta transformazio-prozesu bat beharrezkoa baita, baina aldi berean lagundu egin behar diogu hortik irtetzen. Pertsonak jakin behar du hor gaituela. Idaztea ere oso teknika ona da: hemen ez dagoen pertsonari idaztea edo berarekin hitz egitea. Agurtzeko errituak, erlijiosoak izan ala ez, oso lagungarriak eta garrantzitsuak dira: funeralak, belatorioak... Azken finean, mina konpartitzeak humanizatu egiten du. Momentu horietan pertsonari laguntzea oso inportantea da. Beste pertsonen hurbiltasuna sentitzeak indar asko ematen du eta gerora ere lasaitasuna ematen du.

Nuria Robleño (Eco Trendy Weekend-en sustatzailea):

«Moda gustatzen zaigu eta zerbait ezberdina egitea nahi genuen»

Kurama enpresako sortzaileetako bat da Nuria Robleño, eta hortik abiatu da Eco Trendy Weekend ekimena. Gaur arratsaldeko 17:00etan hasi eta domekara arte Bilboko Yimbi Street Uribitarten egingo den ekitaldia antolatu du eibartarrak beste hiru kiderekin. Bertan, moda eta dekorazioarekin zerikusia duten ekintzez gain, smoothieak nola egin ikasi eta kaktus bat adoptatzeko aukera egongo da, besteak beste. Tailerretan parte hartzeko, hemen erosi daitezke sarrerak: www.ticketea.com/entradas-curso-eco-trendy-16h/



– Hasiera batean Eco Trendy Weekend asteburuan egiteko asmoa zeneukaten, baina gaur hasiko da azkenean.

NBihar jende asko egongo denez, aperitibo moduan gaur 17:00etan zabaltea pentsatu dugu. Bihar eta etzi 11:00-21:00 artean egongo da zabalik. Domekako tailerretarako, ticketea.com-en erosi ahal dira sarrerak 11 eurotan.

– Zein tailer egingo dira?

Goizean txanda bat egongo da lau tailerrekin, gure proiektuak direnak. Batetik, 'Kaktusa adoptatu' izenekoa, zure kaktusaren loreontzia margotuz. Gero, arropa pertsonalizatzeko tailerra ere egongo da, zuk ekarritako erropa moldatu eta beste bizitza bat emateko. Ondoren, Basque Culinary Centerreko Axel Cerpak smoothies tailerra egingo du, nola egin erakutsi eta bakoitzak zertarako balio duen azalduz. Beste txanda bat egingo da ostean, eta, azkenik, tailer sorpresa edukiko dugu.

– Nondik abiatu da Eco Trendy Weekend ekimena?

Moda gustatzen zaigu eta zerbait ezberdina egitea nahi genuen. Hasierako ideia bigarren eskuko arropa saltzea zen, baina nahiko arrunta ikusi genuen. Orduan, erropa marka bat daukagunez, Aquiver, hori ere proiektuan gehitzea okurritu zitzaigun. Ondoren, dekorazio-

aren inguruko hainbat kontu atera ziren eta gustatu zitzaizkigun. Adibidez, bini-lozko diskoetan erlojuak egitea. Hasieran gauza txikia izan behar zen, baina handira jo dugu.

– Handia da egongo zareten tokia (Yimbi Street Uribitarte)?

Ez da oso handia, baina Kale Nagusiaren alboan dago, Bilbo erdian, eta hori da gaur irekitzeko arrazoietako bat.

– Nolako produktuak egongo dira?

Bigarren eskuko arropa, poltsa eta osagarriak; Aquiver markako arropa; erlojuak eta bitxiak ere edukiko ditugu: pultserak, lepokoak...

– Gasteizen ere antzeko zerbait antolatu zenuen.

Bai, proba bat izan zen. Bigarren eskuko arropa bakarrik eskaini genuen eta jende asko bildu zen. Atean gelditu behar izan genituen! Orduan, zerbait handiagoa egitea pentsatu genuen. Hiru hilabete eman ditugu dena antolatzen, beste proiektu batzuekin uztartuz, baina lan handia izan da.

– Eibarrera ekartzeko asmoa badaukazue?

Pentsatu dugu beste toki batzuetan egitea eta, ni Eibarko izanik, zergatik ez? Lehenik, asteburu honetakoa nola irteten den ikusi behar dugu.

www.kolorlan.com

667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L

**KOMERTZIAL
TEKNIKARIA
behar da**



/ Erakutsitako balioaren arabera **BALDINTZA EKONOMIKOAK.**
Enpresako AUTOA.

/ EUSKERA ETA INGELESA ondo jakitea baloratuko da.

BIDALI CURRICULUM-a: quintana@murrplastik.es

#ABIAN Enplegu eta Lanbide Heziketa Azokak 70 lanpostu eskainiko ditu

Martxoaren 29tik 31ra bitartean, Debarreneko Udalek, Debegesa Garapen Agentziaren bitartez, eta eskualdeko Lanbide Heziketa zentroek #ABIAN Debarreneko III. Enplegu eta Lanbide Heziketa Azoka egingo dute Eibarren, Armeria Eskolaren patioan. Egitasmoak SD Eibar Fundazioaren, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka departamentuaren, Obra Social La Caixaren eta Laboral Kutxaren laguntza jaso du. Horrez gain, eskualdeko bederatzin enpresa batu zatzaizkio ekimenari: Danobat Group, IK4-Tekniker, Egile, EPC, Alcorta, Etxe-tar, Kirolbet, Urkotronik eta AGME.

Antolatzaileek diotenez, "oraingoan #ABIAN Azokak lan bila ari direnen eta lanposturen bat betetzeko premia duten in-



guru enpresen arteko topagune izan nahi du. Gainera, gure eskualdeko eskaintza formatiboa kalitatezko kualifikazio aukera gisa eta lan merkatuaren beharriari ondo egokitutako ikasketa gisa ezagutzera ematea du helburu, baita langabezia egoeran dauden pertsonen prestakuntzarako aukera gisa ere". Horretarako, Debegesak eskualdeko eta inguruko enpresen prospekzioa egin du, berehala bete behar dituzten lanpostuak identifikatzeko asmoz. Horrela, dagoeneko 70 lanpostu baino gehiago eskaintzen ditu, arlo desberdinetan. Lan bila dabiltzan pertsonen www.debegesa.eus webgunean jaso de-

zakete lan-eskaintza horien guztien berri eta bertan eman ahal izango dute izena, martxoaren 20a baino lehen. Data horretatik aurrera, martxoaren 27ra arte, lehen hautaketa-prozesua egingo da eta, azkenik, martxoaren 29an, 30ean eta 31n, azokan bertan, euren lantaldeak osatzeko profesional bila dabiltzan enpresek egingo dituzte azken lan-elkarriketak.

Enplegu eta Lanbide Heziketa azoka hau Debarreneko Udalek, Debegesaren bitartez, eskualdean dugun langabezia egoerari aurre egiteko eta ekonomiaren sustapenerako abian jarritako egitasmo eta neurrien artean kokatzen da.

Ni ere #sareanONdo! Eta zu?

Aurten ere Instant1ean lehiaketa antolatu dute Gipuzkoako 13-17 urte bitarteko gazteentzat. Parte hartu nahi dutenek argazkia edo bideoa aurkeztu beharko dute, zer gustatzen zaien azaltzen. Kontua parte hartzen duen gazteak zer duen gustoko, musika, kirola... nola bizi den, edo bere eguneroko une esanguratsuak zeintzuk diren azaltzea da. Hau da, bakoitzaren bizitzako istant bat azaltzea, baina Instagramen bitartez.

Hori bai, lehiaketan parte hartzeko "Ni ere #sareanONdo" edo "Gu ere #sareanOndo" esaldia jarri beharko da, hasieran, tartean edo amaieran. Lehiaketa martxoaren 1ean hasi zen eta maiatzaren 7an amaituko da. Onenen artean sari potoloak banatuko dituzte: argazkien atalean 2 plaza Gazte Oporraldiak programan Menorcarara joateko eta gailuetan gastatzeko 250/150/50 euroko txartelak. Gazteleku onenaren taldeko saria ere banatuko dute eta bi-



deo onenaren saria gailuetan gastatzeko 250 euroko txartela izango da. Gainera, lehiaketan zehar, zozketak egingo dituzte hainbat opari parte-hartzaile guztien artean banatzeko.



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

B. Sarasketa, 1 ac **943 12 82 31**

*Kafea, opilak, ogia,
pintxoak, ardoak...*

**Gozatu EIBARKO
PREZIORIK ONENEKIN!**

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTLONDO

LABADEROKUA Eguneroko 06.00etatik aurrera

Udaberriak odola aldatzen du? Juan Sanchez Vallejo psikiatruk ez dauka zalantzarik: "Bai!". Ez da literalki horrela, "baina egia da hainbat sindrome eta sintoma psikiko eta psikosomatiko jasateko sasoi aproposa dela". Buruko kontuez gain, udaberrian 'lagun' gogaikarri baten bisita jasoko dute askok. Gurean dira alergiak! Miguel Angel Etxenagusia Mendaroko ospitaleko alergologoak polenekin loturiko alergien inguruan egin digu berba eta, kontaktu digunez, sasoi honetan alergiak gogor datoz.



IMAJINA DEZAGUN VIVALDIREN 'LAU URTAROAK'-EKO 'UDABERRIA' ENTZUN AHAL DUGULA (benetan egin dezakezue) testu hau irakurri bitartean. Gorputzaren esnatzea sentituko dugu, loraldia, neguko hotza gainera kendu eta txorien kantu artean aurrean dugun sasoiari gogotsu ekiteko nahia. Udaberriaren ikuspegi itxaropentsua, ameslaria, baina tamalez kasu askotan betetzen ez dena.

Juan Sanchez Vallejo mediku psikiatruk 44 urtetan pasatu du kontsulta, psikiatra moduan bere klinika pribatuan eta baita familia-mediku moduan anbulatorioan ere, eta berak ziurtatzen duenez, "udaberrian zefalea, migraina, gastritis, neke, depresio eta antsietate kasuak bikoiztu egiten dira". Udaberria eta udazkena bezalako klima aldaketa sasoiaren ohiko sintoma psikosomatikoak dira zefalea eta migraina. Gainera, Sanchez Vallejok azaltzen duenez, "erreflexu neurovegetatibo horiek gastritis, neke muskular garrantzitsua, gonbitoak eta abar sor ditzakete".

Gaixotasun neurovegetatiboaz gain, "gaixotasun psikikoak" daudela dio Sanchez Vallejok. Antsietatea, adibidez, "eta larritasun krisian, izualdi krisian eta berti-

goan amaitu daitekeen sintoma da". Berdin dio depresioaren inguruan. "Psikiatruk udazkenean baino depresio kasu gehiago ikusten ditugu udaberrian".

Udaberriko sindromeen kausak

Zientziak oraindik ez ditu udaberriko sindromeen kausa zuzenak zeintzuk diren argitu. "Medikuek ezagutzen ez ditugun



Juan Sanchez Vallejok eguzki-argiaren bariazioen garrantzia azpimarratzen du.

hainbat sentsore ditu giza gorputzak". Hala ere, "udaberrian eta udazkenean depresio eta euforia patologikoen kasuak bikoiztu egiten dira", Sanchez Vallejoren esanetan. "Objetibatu daitekeen datua da, neurtu daiteke".

Sanchez Vallejok burmuinaren erdialde fisikoan dagoen guruin pineala edo epifisian jartzen du fokua. "Giza gorputzak jasotzen duen eguzki-argiaren bariazioak antzematen ditu". Argitasunaren organo gidaria da, bere hitzetan. "Argiaren arabera organo honek euforia edo depresioa sortzen duen susmoa dago". Hala ere, ez da goela frogatuta azpimarratzen du hori.

Eta konponbideak? Udaberriko sindrome hauen kausa zehatza zein den jakin gabe, ezin dira prebenitu. Erremedio sintomatikoak daude, kausalak baino. "Hau da, buruko mina badaukazu, aspirina hartzen duzu; depresioa badaukazu, antidepressiboak; eta tripako minarekin, babesle gastrikoa".

Udaberriko astenia, bai

"Udaberriko astenia existitzen da", dio Sanchez Vallejok, "depresioa, adibidez, astenia psikofisikoa da". Gizakiak depresioarekin, "maila mentalean batez ere",

presio beherakada handia jasaten du, "eta tontotuta, oso nekatuta... sentitzen da. Hori da astenia, nahiz eta kalean nekea bezala ezagutzen dugun".

Kasu honetan ere ezin du azaldu zergatik gertatzen den hori. "Argitasun fenomenoek, fenomeno atmosferikoek edo bestelakoek eragina izan dezakete, baina ez dakigu ziur".

Ordutegi aldaketaren eragina

Martxoaren 26an udako ordutegia hartuko dugu ordularia ordubete aurreratuz. Sanchez Vallejoren ustetan, honek pertsonengan eragina dauka, "baina parrandari dagokionean; arratsaldetan gehiago gozatzeko, pasiatzeko, txikiteoan egiteko aukera ematen digulako, eta kitto!, beste barik", dio txantxetan. Beraz, ordu aldaketak ez du egunerokotasunean gorabehera handirik eragiten.

Alergiak, udaberriko amesgaiztoa

Polena landare hazidunen anteretako zelula amen meiosiaren ondorioz eratutako gorputz txiki eta forma aldakorrekoa da; edo askok esango luketen moduan, jokaldi makurra. Polen klase asko daude, baina horietako batzuen eragina sentitzen hasiak dira jada polenari alergia dutenak.

Miguel Angel Etxenagusia Mendaroko ospitaleko alergologoak adierazi digunez, "neguaren amaieran zuhaitzetako polena ikusten da. Pinuaren polena ikusten dugu orain eta apirilean urkiaren polena egoten da". Horren ostean, maiatzean eta ekainean, "graminiak hasten dira". Jendeak "polenari alergia diot" dioenean polen mota horri buruz ari da, Etxenagusiak argitzen duenez.

Alergologoak adierazten du pinuaren polena nahiko goiz hasi dela aurten, "eguraldi ona goizago hasi delako". Eta adi! Izan ere, udaberriko alergien sasoa "indar-

tsuago" datorrela dio, nahiz eta zaila den nola garatuko den aurreikustea. "Sasoian zehar egiten duen eguraldiaren arabera ikusiko dira gorabeherak", bere esanetan.

Azken urteotan polenen alergia dutenen kopurua ez dela mugitu dio Etxenagusiak, "baina botika eta elikagaiekin zerikusia dutenak igo dira agian". Bere ustez, "gehiago kontsultatzen da, jendea gehiago dago jakinaren gainean eta alergia gehiago diagnostikatzen dira".

Alergiek bizitza baldintzatu dezakete

Alergiak zergatik sortzen diren galderak ez dauka erantzunik. "Normalean kalte egiten ez duen gauza bati ematen zaion erantzun berezia da alergia, gehiegizko erantzuna", Etxenagusiaren berbetan. "Gorputzak defentsak sortzen ditu eta, arazoa saihestu beharrean, norberaren kalterako izaten dira, defentsa horiek norbera hondatzen dute: mukosetan, sudurrean, biriketan...".

Alergiek "eragin dezente" daukate pertsonengan. Ikerketek diotenez, gehien ematen dena errinitisa da, sudurrekoa, eta batzuetan asma ere. "Gehienek rinokon-



Alergier artean errinitisa da gehien ematen dena eta, adituek diotenez, "bizitza baldintzatzen du".

juntibitisa izaten dute, sudurretik eta begietatik", medikuaren esanetan. Gainera, errinitis kronikoak eguneroko bizitzan infartu batek bezala eragiten duela ondo-



riotzatu duten ikerketak daudela dio Etxenagusiak. "Nahiko gogaikarria da eta pazienteak jota egoten da. Ez da gaixo larria, baina kalera ez irten edo kirola ez egiteko arrazoia izan daiteke", azpimarratzen du. "Alergiak bizitza baldintzatzen ditu".

Arazoak murrizteko txertoa

Alergia, agertuz gero, ez da joaten. "Gorabeherak egon daitezke, baina gelditzen da", doktoarearen berbetan. Mendaroko ospitalean prebentzio, tratamendu eta immunoterapia (bakunak) zerbitzua eskaintzen dute. Alergia arazoak murrizteko, "txertoa jartzea gomendatzen dugu, egokia den kasuetan", aitortzen du alergologoak. "Alergia dutenen %80 inguruk hobekuntza somatu du eta hobekuntza hori %80 edo gehiagokoa izan da. Beraz, mezezi du". Txertoarekin ez dira guztiz sentatzen, "baina askoz ere arazo gutxiagorekin geratzen dira".

Udaberria ate joka dagoen honetan polena lehenago agertu bada ere, gauzak lasai daude Mendaroko ospitaleko alergologia sailean. Izan ere, medikuak dioenez udaberriaren ez dute normalean baino lan gehiago izaten. Lana, orduan, alergia jasaten dutenek izango dute.



JUAN ETXAIDE ZENARRUZABEITIA
2017ko martxoaren 11n hil zen,
72 urterekin

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

XABI MUJICA "Smithy":

"Aizkorrik eskaintzen diguna ez da erraza aurkitzen"



"Tarteka mendizalea, tarteka eskalatzalea, tarteka dietista eta tarteka erizaina". Horrela definitzen du bere burua Xabi Mujika ordiziarrak. **Datorren martitzenean Portalean eskainiko duen hitzaldian (19:00etan)** Aizkorriko neguko kanalak deskubritzeko aukera eskainiko digu. Mendi Jardunaldien barruan antolatutako ekitaldian Gipuzkoako mendi garaienak gordeta duen altxorrari begirada berezia botatzeko unearekin gozatzeko parada izango dugu.

– **"Aizkorri, neguko altxorra" euskerazko hitzaldia eskainiko duzu. Zer nahi duzu isladatzea bertan?**

Aizkorrik bi aurpegi dituela: hegoaldeko malda leunek urak goxo-goxo Mediterraneora eramaten dituzten bitartean, iparraldeko kareharrizko horma bertikalak gailurrak babestu eta euretatik bortizki erortzen direla ibilgune basatian, Kantauri itsasoan amaitzeko. Hango bideek ere bi isurialde horien itxura dute: hegoaldeko ohiko bideak goxoak diren bitartean, iparraldeko kareharrizko hormak gotorleku bezala dihardute.

– **Eta iparraldeko horma bertikal horiei eutsiko diezu batez ere, ezta? Neguak Aizkorri zein desberdin egiten duen nabarmentzeko asmoz...**

Aizkorri zuriz janzen denean urak osatzen dituen erretenak, elur jausi eta harkaitzak elurrez estaltzen dira. Orduan kranpoi eta pioleta atera eta kareharrizko hormetatik igotzeko aukera ematen digu, urtean zehar mendizaleoi itxitako ateak irekiko balitu bezala. Jakinda sasoi tar-te hori ez dela denboran luzea izaten; horregatik erakutsi nahi ditut kanal horiek, askorentzat ezkutuan dagoen altxor hori ezagutzea merezi duelako.

– **Neguan bereziagoa izateaz gain, beste mendietatik desberdintzen duten zein balore ditu Aizkorrik?**

Batez ere, etxetik gertu dagoela; eta halakoan bila ez duzula zertan Pirinioetaraino joan, bidean 3-4 ordu galtzeko. Euskal Herrian bertan dugu altxor hau. Gainera, Pirinioetako korredoreetan aurkitu ezin duzuna eskaintzen dizu: oso abaniko zabala. Teknikoki, hasi errazenetik eta zailenera heltzeko, denetarik ibilbideak egin ditzakezu.


– **Aizkorriara zenbat aldiz igo duzun... zenbaezina izango da.**

Aurrekoan anaiarekin jardun nuen horren inguruan eta elkarrekin neguan 25/30 bide ezberdin egin ditugula kalkulatu genuen. Nahiko baliatu gara egun gutxi horiek eskaintzen dizkiguten aukeraz.

– **Zein bide gomendatzen diezu mendizaleei, zerekin gozatzeko?**

Bat baino gehiago dago, jakina! Behin raketak albo batera laga eta, kranpoiak eta pioleta hartuta, horrelakoetan sartu nahi duen hasiberriak aukera mordoa du, kanal handia gainera gailurrean amaitzen delako. Nik esango nuke alpinismoan hasi garen inguruko gehienontzat kanal hori izan dela gure lehenengoa. Hasiberrientzat ezin aproposagoa da eta, behin gora helduta, ez dira gutxi beheranzkoan eskiekin jaisten direnak ere.

Oinarri mailako gimnasta guztiek lortu dute Espainiako txapelketarako txartela



Hasi da indibidual mailako denboraldia Ipuruko federatutako eta oinarri mailako gimnastentzat.

Aurreko zapatuan oinarrikoen Euskadiko txapelketa eta absolutuen Euskal Ligako lehen fasea jokatu ziren. Lehenengokoan han izandako eibartarra guztiek lortu zuten apirilaren 22an Gudalajaran jokatu den Espainiako txapelketarako txartela. Taldeka, June Herederok, Lur Aranburuk, Maddi Teranek, Enara Bilbao eta Indira del Pinok osatutako boskotea bigarren izan zen bost arokin egindako ariketan. Banaka Izaro Altuna infantiletan (6.) eta Ana Portu kadeteetan (7.) izan ziren Ipurua-

ko ordezkari onenak. Federatuen Euskal Ligari dagokionez, Ipuruko bost gimnasta dira ekainean jokatuko den Espainiako txapelketara joateko asmoa dutenak. Euren artean, senior mailako Jennifer Hernandez bigarrena izan zen aroarekin, Elena Sudupe 5. eta Malen Txurruka 9. Ele-ne Varela, bestalde, 9. izan zen pilotarekin egindako ariketan.

Asteburu honetan federatuek eta amateurrek hitzordua dute Donosti torneoan eta hurrengokoan, hilaren 25ean, hain zuzen, amateur eta eskola A mailako Gipuzkoako txapelketaren 2. fasea jokatuko da Ibarren.



Errugbiko nesken taldea Hernaniri nagusitu zitzaion

Aurreko asteburuko domekan jardunaldi osoa bizi izan zuten errugbi zaletuek Unben, paella-jana eta guzti tartean izan zela. Hori bai, emakumezkoen taldea Hernaniri 24-0 nagusitu bazitzaion ere, ez zuen gauza bera lortu senior mailako gizonezkoen lehen taldeak, Campus Ourenseren aurrean 11-18 amore eman behar izan zuelako. Asteburu honetan azken horiek atseden hartuko dute; neskek, bestalde, Escor Gaztediri egingo diote bisita.

Gipuzkoako hiru txirlo bola-joko txapelketa hasiko da bihar

Soraluzeko Ezoziako bolatokiari arratsaldeko 17:00-etan dute hitzordua txapelketaren 48. edizioan parte hartuko duten bolariak. Txapelketak guztira 10 jardunaldi izango ditu eta azkena Eibarren jokatu da, Asola Berriko instalazioetan, ekainaren 3an. Ohikoa den bezala, tiraldiak zapatuero izango dira, beti ere 17:00etan hasita, eta jardunaldi bakoitzeko sariak 65, 50 eta 35 eurokoak izango dira sailkapeneko hiru onenentzat. Egutegia honako hau izango da: bihar Soraluzeko Ezoziari, martxoaren 25ean Elgoibarko San Pedron, apirilaren 1ean Azpeitiko Garmendipen, apirilaren 8an Elgoibarko San Miguelen, apirilaren 22an Soraluzeko San Andresen,

maiatzaren 6an Debako Las-turren, maiatzaren 13an Bergarako San Joxepen, maiatzaren 20an Elgetan, maiatzaren 27an Azkoitiko Floreagan eta, amaizeko, ekainaren 3an Eibarko Asola Berri.



Mendiko eski-irteera egingo dute hilaren azken asteburuan

Klub Deportiboko aurtengo mendiko eski-irteera martxoaren 25 eta 26ko asteburuan izango da, zehazki Marcadau bailaran dagoen Wallon aterpera. Eibartik zapatu goizean irtenda, behin Pont d'Espagnera helduta bertako iraupen eskiko pistetatik hasiko da ibilbidea. Cayaneko lautadara heltzean hango baldintzen arabera igoserako bide normala egiten saiatuko dira: bai Lacs de L'Embarretetik igo eta La Cardinquereko tontorra eginez, bai Pouey Trenous bailararen barrena igota. Domekan, bestalde, orduan ere aurkitzen dituzten baldintzak kontuan hartuta, Alphonse Meillon, Petite Fache, Pene d'Aragon, Cambales eta beste tontor batzuen artean aukeratzeko modua izango dute. Interesatuak Deporren eman dezakete izena martitzen eta egunetan (19:30-20:30) edo 943 201904 telefono zenbakira deituta, beti ere hilaren 21era arte.

Mendilibar eta Enrich sarituta

Eibar FT-ko entrenatzailea eta taldeko aurrelaria LaLiga Santander-eko otsaileko onenak izendatu dituzte. Batez ere hilabete horretan lortutako hiru garaipen ezin argiagoez (Valentziari 0-4, Granadari 4-1 eta Malagari 3-0) eman diete gorengo puntuazio hori. Mendilibar Bartzelonako Luis Enriqueren eta Sevillako Sampoliren aurretik sailkatu da eta Sergi Enrich Leo Messi (Bartzelona) eta Fernando Torres (Atletico de Madrid) aurrelariaren aurretik. Ikusten denez, sarirako aurkariak ere ez dira nolanhikoak izan. Bestalde, taldeak bihar eguerdian Espanyol hartuko du lporuan, 13:00etatik aurrera. Bartzelonan jokaturako lehen itzuliko partidua ere ordu berean eta zapatuan izan zen. Orduko hartan atsedendian 0-3 irabazten zuten eibartarrek; amaieran, berriz, puntu bakarra lortu zuten (3-3).



Eibarko beteranoak galtzaile

Aurreko zapatu goizean Unben jokaturako foballari beteranoen torneoan eibartarrek ez zuten egun onena izan eta lehiari zandako hiru neurketak galdu zituzten: Osasunaren aurka 5-2, Athletic-arekin 3-1 eta Realarekin 3-0. Athletic-ek, bestalde, jokaturako hirurak irabazi zituen; Osasunak bi irabazi zituen eta Mirandeseekin berdindu; eta Realak bi irabazi eta Valladolidekin galdu. Azken talde horrekin jokatu zuen Bea Eibar FT-ko bigarren entrenatzaileak.

*Athletic 3 Logroñés 2
Real Sociedad 2 Barakaldo 0
Mirandés 1 Torrelavega 1
Eibar 2 Osasuna 5
Valladolid 3 Sestao 0
Barakaldo 2 Logroñés 0
Real Sociedad 0 Valladolid 1
Eibar 1 Athletic 3
Osasuna 0 Mirandés 0
Sestao 2 Torrelavega 2
Valladolid 2 Torrelavega 1
Osasuna 3 Barakaldo 2
Eibar 0 Real Sociedad 3
Athletic 3 Mirandés 0
Logroñés 4 Sestao 1*



IKER: Inoiz itzaliko ez den zure irribarre eder horrek Eibarren alde borrokan jarraitzeko indarrak emango dizkigu.

ESKOZIA LA BRAVA
ZURE Eskozia la Bravako FAMELIXIA

Izarraitzera irteera gidatua antolatu dute Korrika Kulturalen hilaren 25erako

Arrate Kultur Elkarteak, AEKrekin elkarlanean, "Izarraitz, harria eta ura" irteera antolatu du martxoaren 25erako, Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan. Inma Mugerza Perelló geologoak gidatutako ibilbidea izango da eta abiapuntua Aittolako Gurutzearen alboko (GI3210 errepidean) aparkalekua izango da, 10:00etan (09:00etan Untzagan). Ibilbidea, berriz, hau izango da: aparkalekua-Urruzolako txabola- Leizerdiko putzua eta txabola- Izkiturria- Asketako lepoa- Erlo (1.026 m)- Asketako aldapa- Potzuaundiko elurzuloa- Xoxoteko aterpea. Iraupena 2'5 ordukoa izango da (azalpenak barne) eta edozeinek erraz egiteko moduko irteera izango da.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, "geldiune desber-

dinak egingo ditugu, modu integral batean ingurune karstikoak batzen dituen ezaugarriak hizkuntza xume eta ulergarrian azaltzen joateko. Ulermena errazteko irudiak eta eskemak erabiliko dira. Ikusiko ditugun gauzen artean, kareharriko mendiaren sorrera, koralez osatutako arrezife zaharrak, karst-a zer den eta nola bilakatzen den, ezaugarri nagusiak (leizeak, dolinak, lapiaza...), lur azpiko urak eta iturriak, Pirinioen sorreraren adierazle den Sesiarteko toles-a, gizakiak ingurunea nola moldatu duen, elurzuloa eta beste hainbat daude". Joan nahi duenak aurretik izena eman behar du (arratekultu@gmail.com / 638 284 912 edo eibar@aek.eus / 943201379). Azken eguna martxoaren 20a izango da.

GURE INGURUKO HISTORIA EZAGUTZEKO MENDI IRTEERA IZARRAITZERA

- 1.- Martxoaren 25ean Goizko 09:00etan Untzagan eta 10:00etan Aittolazar aparkalekuan.
- 2.- Elgoibarko INMA MUGERZA geologoak gidatutako ibilbidea.
- 3.- Kopuru mugatua.
- 4.- Izena emateko: Azken eguna: 2017-03-20. Nola: arratekultu@gmail.com / 638 284 912 eibar@aek.eus / 943201379.

Eibarraldeko **aek**

ARRATE KULTUR ELKARTEA



FELIX MORQUECHO

Antzerkia bizirik, mesedez

Hamaika edo hamabi urte nituenean antzezlan bat prestatzea tokatu zitzaigun eskolan. El Quijote-ko atal bat prestatu behar genuen. Karnele andereñoa zuzendari lanetan jarri zen gogo guztiarekin eta han ginen gu, ume moko espresio gabekoak. Hala nola bota genuen gure testua, baina konturatu ez arren, argi geratu zen nire etorkizuna ez zegoela taula gainean. Urte batzuk pasa ziren eta lagun bat Narruzko Zezen taldean sartu zen. Horrela hasi ginen bertara joaten, eta antzezlearen lagunaren nerbioak zer ziren jakiten. Hanka sartuko al du? Zein urduri dagoen! Berrito aterako al da? Laguna aitzakia hartuta, urte haietan antzezlan asko ikusteko aukera izan nuen eta bereziki gogoratzen dut unibertsitate bateko taldeak obra klasiko batekin egindako muntaia. Horri helduta betirako sinistuko dut izenek ez dutela antzezlan bat ona egiten. Egun hauetan Eibarren hainbat proposamen daukagu eta zaila da aukeratzeko. Badaude izen ezagunak, barre errazak eta arrakasta argiak. Baina badaude konpainia xumeagoak ere, suziarik ez dituztenak baina agian, ordubetez gure bihotza estutuko digutenak. Antzerkiak badauka zerbait berezia pantaila batek ematen ez diguna eta orain guzti hori disfrutatzeko aukera daukagu. Lagun batek esaten duen bezala, erabili dezagun, ez daitezen gure Antzerki Jardunaldiak hildako polit bilakatu.

Jane Goodall hobeto ezagutzeko saioa


Astlehenean, Pagatxa emakume elkartearen "Emakumeen historia" egitasmoko hurrengo saioan Jane Goodall primatologo, etologo eta antropologo britainiarra hobeto ezagutzeko aukera izango da. Leticia Martinez-Alcocer formatzaileak gidatutako saioa Portalean, ikastaro gelan izango da, 18:30etik 20:00etara eta, betiko moduan, jarduera irekia eta doakoa izango da.



Hiru erakusketaaldi berean Portalean

Martxoaren 26ra arte hiru erakusketaaldi berean bisitatzeko aukera izango da Portalean, erakusketa aretoan. Eburne Martinez Arroyoren "Render" izenburukoak artista bilbotarrak azken bi urteotan egindako piezak, hainbat material ezberdinen gainean egindako marrazkiak biltzen ditu. Zalao Ipiñaren "Argiaren igarobidea" izenekoak, berriz, bi eta hiru dimentsioen arteko joko modukoa azal-

tzen duten artelanak ipini dituzte ikusgai. Eta, erakusketa bi horiekin batera, Martxoaren 8aren inguruko kartel-lehiaketara aurkeztutako lanak ere ikus daitezke. Erakusketa aretoa martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era zabalduko dute.



"Argiaren igarobidea" erakusketa. Maialen Belaustegi



JOSUNE GOROSTEGI (aktorea)

– Zeren inguruko bakarrizketa eskainiko duzu?

Bakarrizketa hau Virginie Despentesen King Kong Teorian oinarrituta dago. Bertan erodei buruz hitz egiten da, izan ere, badugu “jarraitu beharreko eredu” bat eta hori jarraitzen irakasten digute eta hortan saiatzeko gara. Ikuskizun honetan barneratu dugun irudi hori erreala ez dela erakutsi nahi dut, emakume okerrak garelako alegia, erodutik kanpo gaudelako. Beraz, bakarrizketaren bitartez kolokan jartzen dira eredu horiek, azken finean eredu perfektu hori ez delako erreala eta ez dugulako nahi ere. Bakarrizketa hau prestatzerakoan King Kong Teoria liburu hitzurrearekin egin nuen lan batez ere, baina liburu osoa hartu dut kontuan. Finkatu duguten eredu honetatik guztiz aldentzen den pertsonaia bat eraiki nuen,

“Nik uste dut denok garelako emakumetasunaren proletariak”

Martxoaren 17an, “King- Kong neska” bakarrizketa eskainiko du Josune Gorostegi Portalean, 19:00etako saioa euskaraz izango da eta 20:30ekoa berriz, gazteleraz. Bakarrizketa hau Virginie Despentes-en “Teoria King Kong” liburuaren hitzurrean oinarritzen da eta Inaki Seguiolak euskaratu du. Gai desberdinen inguruan arituko den arren, jendartearen nagusitzen diren “eredu lorrezin” hori jarriko du ezbaian.

forma eman nion eta azkenean punk kontzertu baten forma hartu duen ikuskizun honen barruan, pertsonaia ere nahiko punkia geratu zait. Umorezkoa da bakarrizketa eta berezko testua ere hain da gordina, barregurea sortzen duela. Sexua, zaintza, edertasuna, emakume nahiz gizonen lortu beharreko perfekzioa, ... Gai asko ukitzen dira, oso konpletua da.

– Zer da emakumetasunaren proletaria izatea?

Testuak horrela dio: “Ni emakume eder bat izango banintz eta edertasunari esker aurkitzen ditudan gizon guztien jarrerara aldatu ahalko banu, ez nuke hemen hitz egingo. Baina ni emakumetasunaren proletaria naiz”. Azken batean proletaria izate hori ere aldarrikatzen du, hau da, eredu hori ez jarraitzea eta jarraitu nahi ez izatea. Nik uste dut denok garelako

proletariak, agian batzuk beste batzuk baino gehiago; izan ere, batzuk eredu jarraitzen saiatzeko dira edo gertu mantentzea lortzen dute.

– Zein helbururekin egindako ikuskizuna da?

Ereduak kolokan jartzea da ikuskizunaren nahia. Ikusleen hausnarketa bultzatzea eta ontzat hartzen ditugun gauzak “onak” zergatik diren pentsatzea. Eta garrantzitsua da konturatzea balore edo eredu hauek jendartearen finkatuta daudela, ez dela kontu individuala. Honez gain, feminismoa oso toki politikotik datorrela eta gauzak beti oso serio hartu ditugula kontuan hartuz, bai Despentesek bai nik uste dugu beharrezkoa dela punki samarrrak izatea. Beste ate batzuk irekitzen dira gauzak beste modu batera planteatzen badira.

Apirilerako ikastaroak KZgunean


Eibarko KZgunean apirilerako ikastaroak prest daukate. **Planimifikatutako ikastaroen artean**, besteak beste, “Oinarritzko Internet” (internet munduan sartu, PC bat zer den ezagutu, nabigatzen eta posta elektronikoa erabiltzen ikasi...), “Facebook” (sarearen bidez ezagutzen dituzun pertsonekin harremanetan jarri eta dokumentuak partekatzeko) eta “Google Aplikazioak” (gure denbora eta informazioa hobeto kudeatzen ikasteko) eskainiko dituzte. Horrekin batera, ikastaro presentzialetaz gain norberak etxean egiteko moduko beste batzuk ere badaudela gogorazi dute arduradunek. Ikastaro guztiak doan dira. Informazio gehiagorako KZgunean (Portalean) zuzenean galdetu daiteke, 943023637 telefonora deitu, tutor.eibar@kzgunea.net helbidera idatzi edo www.kzgunea.eus helbidean begiratu.



Nazioarteko poesia eta arte jaialdiari lotutako saioa Coliseoan

Emakume Oihua Nazioarteko Poesia eta Arte Jaialdiak zazpigarren edizioa beteko du aurten eta munduko neskatila guztien omenez “Askatasun Oihua” goiburua dauka. Mundu osoan zehar

egingo dira horri lotutako ekimenak eta Eibarren ere horrekin bat egin du Maite Lorenzok zuzentzen duen Itzamna Poesia Tailerrak, gaurko hainbat musikari eta dantzari lagunduko duten poesia errezitala antolatuta. Saioa 20:30ean hasiko da, Coliseo antzokian, eta 25 bat poetarekin batera Eibarko Koro gaztea, Eibarko Balleta, Elena Martin (pianoa), Danel de Prado (saxofoia) eta Jose Ignacio Maestre (kantautorea) igoko dira eszenatik. Sarrerak 3 euro balio du.





Irigoienen "Txinako lau hiritan" gaurtik Topalekuan ikusgai

Jose Luis Irigoien argazkilararen "Txinako lau hiritan" erakusketa gaur 19:00etan zabalduko da Topalekuan, ikus-entzunezko baten proiektzioak eta pintxo-poteak lagunduta. Apirilaren 2ra arte ikusgai egongo den erakusketan dauden argazkiekin liburua ere egin du Irigoienek eta, nahi duenak, interneten, Blurb plataforman (www.blurb.es/b/7751117-txinako-lau-hiritan) erosteko aukera dauka, paperezko bertsioan zein PDF formatuan.



Jolasak Plazan bihar arratsaldean

Indianokua gaztelekuak 12-16 urte bitarteko nerabeentzat jolasak antolatu ditu bihar arratsalderako, zezen plazako multikirol pistetan. DBH-ko maila guztientzat prestatutako jolasak 18:00etan hasiko dira eta antolatzaileek gazte guztiak Jolasak Plazan ekimenaren bigarren edizioan parte hartzera animatu nahi dituzte. Bestalde, Indianokua gaztelekuak, Jazinto Olabe ludoteka eta Kirol Patronatoa 3x3 Kale Saskibaloia Txapelketa antolatzen ari dira apirilaren 21 eta 22rako. Parte hartu nahi dutenek martxoaren 24tik apirilaren 7ra arte izango dute izena emateko aukera.

Bisita gidatuak Museoan

Bihar arratsaldean doako bisitak egingo dituzte Armagintzaren Museoan, 17:00etan euskaraz eta 18:30ean gazteleraz. Talde biek Portaleko azken pisuan urte osoan ikusgai dagoen erakusketa bisitatzeko aukera izango dute, ikusten dituztenen inguruko azalpenak jasotzearekin batera.



Kamisetak diseinatzeko tailerra

Martxoaren 31n, 18:00etan, kamiseten diseinu tailerra egingo da Jazinto Olabe ludotekan. LH 3. mailatik 6. mailara bitartekoek izango dute izena emateko aukera. Informazio gehiagorako ludotekan galdetu dezakezue.

Gosari osasuntsuak

Martxoaren 29an gosari osasuntsuak prestatzen ikasteko aukera izango da FARMALUReko Zalao Otaduirekin. Ikastaroa Portaleko sukaldean emango du eta talde bi osatuko dituzte, ordutegi



ezberdinetan (13:00etatik 16:00etara eta 18:00etatik 21:00etara). Interesa duenak FARMALUR parafarmazian eman beharko du izena eta informazio gehiagorako ere han galdetu.

Osaba Juan:

Zu bai ziñala benetako eibartarra; eta zure irribarria, ezin maitagarrixagua zan. Gure aldetik aldendu bazara be, iñoiz ez zaittugu ahaztuko.

ZURE ARREBA BEGOÑAREN ETA ZIORTZA ETA IÑAXIO UNANUEREN PARTEZ



martxoaren 17tik 23ra arte



“Terror y miseria en el primer franquismo” (Grupo Teatro UC Cantabria)

18an (zapatua), 20:30 / 65 minutu

Hezkuntza Esparruan / 5 euro / DRAMA

ANTZEZLEAK: Olivia Matas, Belen Cañas, Daniel Engemann, ...
ZUZENDARITZA: Rita Cofiño

Oroimenaren antzerkia bezala definitu du egileak bere testua, “baliotsua iragana gordetzeko, baita oraina zerbait ulertzeko eta, agian, lagungarria etorkizuna aukeratu eta bere alde borrokatzeko ere”. Heriotza tamalgarriak, gosetea, erosteko ahalmenaren hondoratzea, merkatu beltza, korrupzioa, maisu nazionalen garbiketa, kartzela, zapalketa, erbesteratzea... orduko egunerokotasuna nabarmentzen dute, beti ere ausardiatik eta herri berri bat loratzeko asmoarekin.



Gala de Magia (Fábrica de Magos)

19an (domeka), 17:00/20:30 / 90 minutu

Coliseoan / 12 euro / MAGIA

ANTZEZLEAK: Mago Valen, Carlos Adriano, Imanol Ituiño, D'Albeniz, Mago Sun

Mago Valen mentalista beteranoena da euskal magoen artean eta bera izango da aurkezlea, umore ugari eta zorrotzarekin. Carlos Adriano argentinarra, bestalde, gazteleraz lan egiten duten magoen artean publiko gazteen artean onarpen gehien jasotzen duena da. Imanol Ituiñok, bestalde, Areto Magia Sari Nazionala jaso du eta Bilbotik dator. D'Albeniz 17 urteko mago gazteak 2016an Frantziako eta Espainiako Sari Nazionalak jaso ditu. Eta, amaitzeko, Sun Magoa Euskal Herriko harrigarriena da ilusio handietan. Bost mago horiekin, beraz, txikiak handian pasatzeko aukera bikainarekin batera, handiak txikiak ziren sasoiko sentsazioak berreskuratuko dituzte.



Imanol Ituiño



D'Albeniz



Carlos Adriano



Mago Valen



Sun Magoa

“Liquidación por cierre” (Teatro Che y Moche)

21ean (martitzena), 20:30 / 90 minutu

Coliseoan / 12 euro / KOMEDIA MUSIKALA

ANTZEZLEAK: Tereza Polyuka (*biolina*), David Ardid (*gitarra*), Jean-Pierre Bailly (*gitarra manoutxea*), Luna Otxoa (*biolontxelo*) eta Joaquin Murillo (*saxofoia*)
ZUZENDARITZA: Joaquin Murillo

Guztiok jarraitzen ditugun kontsumismoaren araei buruzko satira baten aurrean aurkitzen gara, hausnarketa guztiz lagungarria gure bizitzako arlo mamitsu eta funtsezkoenak berreskuratuzko: tradizioak, ohiturak, familia... Eta bost antzele-musikoeekin, Europa ekialdeko doinuak erabiliz sortzen duten emozioen bitartez, imaginarioaren zehar ikusle guztientzat komuna den bidaia kolektiboa egingo dugu.





Santiago Auseronen kantaldia ERMUAN

Gaur 22:15etik aurrera "A solas contigo" izenburuko kantaldia eskainiko du Santiago Auseronek. Juan Perro goitizenez ezagunagoa den musikariak "El viaje" aurkeztuko du. Zazpigarren albuma den honetan bakar-bakarrak aritzen da, gitarra akustikoarekin batera. Sarrerak ohiko tokietan daude salgai, 12 eurotan.



Ibai Marin zuzenean ELGETAN

Bihar arratsaldean, 19:30ean "Ibai Marin y la vieja guardia" emanaldia hartuko du Elgetako 13 Spaloia kafe antzokiak. Ibai Marin, Hirako abeslariaren bakarkako proiektua da hau, Bidean Naiz biraren barruan.



Errefuxiatuen alde ELGOIBARREN

2-dean B-rotuz Siriako errefuxiatuei laguntzeko elkarteak hilaren 30erako "Iluntze solidarioa" antolatuko du, Elgoibarko Herriko Antzokian, 20:30ean: hasteko "Wait, just wait" dokumentala aurkeztuko dute. Jarraian, Iزارo abeslariak elkartzun kontzertua eskainiko du. Proiektu honen bidez biltzen duten dirua SMH elkarteari bideratuko diote. Sarrerak 10 euro balio du aldeaz aurretik erosita eta, bestela, leihatilan 12 eurotan salduko dute.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Jose Moreno Sayago. 89 urte. 2017-III-10.
- Florentino Alonso Estevez. 65 urte. 2017-III-10.
- Vega Bañuelos Garcia. 80 urte. 2017-III-10.
- Jose Alberto Iriondo Lizarralde. 72 urte. 2017-III-11.
- Juan Etxaide Zenarruzabeitia. 72 urte. 2017-III-11.
- Iker Amutxastegi Fernandez. 41 urte. 2017-III-13.
- Andrea Velazquez Rodriguez. 92 urte. 2017-III-13.

jaiotakoak

- Ander Martin Vega. 2017-III-5.
- Nora Merino Francisco. 2017-III-9.

farmaziak

- Barixakua 17
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 18
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Domeka 19
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Astelehena 20
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 21
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 22
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Eguena 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Barixakua 24
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2017AN-
Mandiola (S. Agustin, 3)

SUDOKUA

	5	9						8
7	3							
8			4	5	3	9		
					1		9	3
			6		2			
9	2		5					
		4	8	7	5			9
							4	7
3						1	8	

AURREKOAREN EMAITZA

3	8	7	1	6	4	9	5	2
9	6	4	2	7	5	3	8	1
1	5	2	3	9	8	4	7	6
5	7	9	6	3	2	8	1	4
8	3	6	4	5	1	2	9	7
4	2	1	9	8	7	5	6	3
6	1	5	8	2	3	7	4	9
2	9	8	7	4	6	1	3	5
7	4	3	5	1	9	6	2	8

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 17

INAUGURAZIOA

19:00. Jose Luis Irigoien argazkilariaren *"Txinako lau hiritan"* erakusketa. Ikus-entzunezkoa eta pintxo-potea. Topalekuan.

BAKARRIZKETA

19:00. *"King Kong neska"*, Josune Gorostegiren eskutik (euskeraz).

20:30. *"Chica King Kong"*, Josune Gorostegiren eskutik (gazteleraz). Portalean.

POESIA

20:30. *"Grito de mujer"* poesia, musika eta dantza ikuskizuna. Coliseoan.

Zapatua 18

LORE AZOKA

09:00/14:00. VII. Lore Azoka (erakusketa eta salmenta).

11:30. Umeendako landaketa-tailerra. Urkizun.

BIGARREN ESKUKO AZOKA

11:00. Gure Esku Dago ekimenak antolatuta, bigarren eskuko azoka. Untzagan.

ASTELENA HAUR PARKEA

10:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelena frontoian.

ARMAGINTZA MUSEOA

17:00. Doako bisita gidatua, euskeraz.

18:30. Doako bisita gidatua, gazteleraz. Armagintzaren Museoa.

UMEENDAKO ZINEA

17:30. *"Superwings"*. Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

KIROLA FAMILIAN

17:30. Ipurua kiroldegian.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. *"Terror y miseria en el primer franquismo"* (UC). Hezkuntza Esparruan.

Domeka 19

IBILALDIA

08:30. Kalamuara Ibilaldia, Eibarko Sareren eskutik. Urkizutik abiatuko dira Kalamuara, gero Arratera joateko. Nahi duenak, Usartzan 10:00etan ibilaldiarekin bat egiteko aukera izango du.

12:30. Ekitaldia Arraten.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:00 eta 20:30. *"Gala de Magia"* (Fabrica de Magos). Coliseoan.

KIROLA FAMILIAN

17:30. Ipurua kiroldegian.

PLAZAN JOLASAK

18:00. Plazan jolasak (II. edizioa). Antolatzailea: Indianokua gaztelekua. Zezen Plazan.

GOI ARGI ELKARTEA

18:30. Urteko batzar nagusia. Jarraian, oparien zozketa eta Goruntz abesbatzaren emanaldia. Goi-Argi elkartean. Aurretik, 13:00etan urtean zehar hildako bazkideen alde meza egingo da Estaziño kaleko San Agustin elizan.

Martitzena 21

IKASTEN

10:00. *"Boterearen irudiak aro modenoan (II)"* hitzaldia, Urko Barrosen eskutik (Historian lizentziatua). Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

EMAKUMEEN HISTORIA

18:30. *"Jane Goodall"*. Formatzailea: Leticia Martinez-Alcocer. Portalean (ikastaro gelan).

MENDI JARDUNALDIAK

19:00. *"Aizkorri, neguko altxorra"* hitzaldia, Xabi Mujika "Smithy"-ren eskutik. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. *"Liquidación por cierre"* (Teatro Che y Moche). Coliseoan.

Eguaztena 22

IBILALDIA

09:12. Irun-Irun (Plaianditik). Donostiaraino tren eta Irunera "topoa". Bazkaria eraman. Irteera ordua Ardantzatik (09:14 Estaziotik).

GURASOAK MARTXAN

18:00. *"Comunicación y resolución de conflictos en la vida real y digital"* hitzaldia, Baikarako Garbiñe Arrizabalagaren eskutik. Portalean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 23

IKASTEN

10:00. *"Kontzertu ekonomikoa"* hitzaldia, Juanjo Alvarezen eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

17:45. Dantzaldia. Untzagako jubilatue txean.

KALERATZEAK STOP

19:00. Kaleratzeak Stop plataformako bilera irekia. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Erakusketak

Martxoaren 26ra arte:

- "RENDER" EDURNE MTNEZ. ARROYOREN erakusketa. (Portalean)
- "ARGIAREN IGAROBIDEA" ZALOA IPIÑAREN erakusketa. (Portalean)
- MARTXOAREN 8AREN INGURUKO KARTELEN erakusketa. (Portalean)

Martxoaren 31ra arte:

- AGUSTIN BUSSELOREN argazk-erakusketa. (El Ambigu tabernan)
- M. SOL YABENEN argazki-erakusketa. (Portalea jatetxean)

Apirilaren 2ra arte:

- "TXINAKO LAU HIRITAN" JOSE LUIS IRIGOIENEN argazkiak. (Topalekuan)


Apirilaren 22ra arte:

- "MIRADORES" LUCENA MORALEN argazkiak. (El Corte Inglesean)


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, MARTA Arakistain, hillaren 14an 14 urte bete zenduaz-en-eta. Asko maite zaittugu. Danon partez.



Zorionak, ELENE, haraiñegun hiru urte bete zenduaz-en-eta. Patxo erraldoi bat famelixaren eta, batez be, Julenen partez.



Zorionak, ANE, gure printzesa, haraiñegun 5 urte egin zenduaz-en-eta. Etxekuen eta, batez be, Xabi eta Mararen partez.



Zorionak, JONE, martitzenian 10 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, PELLO, martitzenian bost urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Nilen partez.




Zorionak, AMAIA, atzo gure sorgintxok hiru urte bete zittuan-eta. Patxo haundi bat danon eta, batez be, Ixoneren partez.



Zorionak, IRAIA, gaur bost urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaguztiaren partez.



Zorionak, GALDER, domekan sei urte egingo dozuz-eta. Aupa, txapeldun! Famelixaren partez.



Zorionak, LUKEN, domekan bost urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, UXUE eta NEREA, datorren domekan lau urte beteko dozuez-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Ongi etorri, ANDER, martxuaren 5ian gure artera etorri ziñan-eta. Etxekuak oso pozik gagoz, batez be zure arreba MAIALEN.



Zorionak, neskek!! 8xan UXUEk eta 15ian NEREAk 10 urte bete dozuezelako!! Patxo potolo bana lagun eta famelixakuen partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

18an: 17:00, 19:45, 22:30

19an: 20:00

20an: 20:30

"Moonlight"

Zuzendaria: Paco Arango



(2 ARETOAN)

18an: 17:00, 19:45, 22:30

19an: 17:00 (1 Aretoa)

20an: 20:30

"Manual de un tacaño"

Zuzendaria: Fred Cavaye



(ANTZOKIAN)

18an: 17:00, 19:45, 22:30

19an: 17:00, 20:00 (2 Aretoa)

20an: 20:30

"La Bella y la Bestia"

Zuzendaria: Bill Condon



1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak



Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Urkizun pisua salgai. Tel. 617-329239.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-032117.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar erdialdean. Tel. 637-004773.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Ipuruako Eroskiko behealdean. 23 m². Sarbide ona. Oso egoera onean. Tel. 652-764566.
– Garaje itxia saldu edo alokatuko nuke Untzaga inguruan. Plaza batekoa eta trasteroarekin. Tel. 656-733131.

3.2. Errentan

– Lokala alokagai Birjiñape 1-ean. 33 m². Bulegoa egiteko aproposa. Tel. 688-678934.
– Garajea alokagai Ego-Gain kalean. Tel. 660-312431.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 688-899813.
– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-367802.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-288967.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 622-623216.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-291539.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 673-028698.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-628137.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-197835.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Disponibilitate osoa. Tel. 612-493242.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 600-840833.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 666-197831.
– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 654-949568.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 645-891307.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 658-734699.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientziarekin. Tel. 612-550377.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Orduka. Tel. 631-506763.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 646-778839.
– Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 685-768026.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 632-779980.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 631-934819.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako eta plantxa egiteko. Esperientzia. Tel. 612-268115.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 608-341064.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-221729 eta 634-256471.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean gauzez ere. Tel. 659-908513.
– Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-018667.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-691242.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-091262.
– Geriatria ikastaroa egindako emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-304763.
– Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 630-112222.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-910326.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-526711.
– Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-988471.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-139396.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-083580.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldetan laguntzeko. Tel. 652-032117.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 677-175581.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 626-444649.
– Erizain-laguntzaile tituludun emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-226039.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-436462.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 605-402030.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-065633.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 680-808125.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Interna. Tel. 631-613245.
– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-562461.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-907807.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita baserrietan ere. Tel. 632-776905.
– Neska eskaintzen da goizez dendari jarduteko, garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 697-891070.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 633-101852 eta 631-282203.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Esperientzia. Orduka. Tel. 602-490595.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 678-814941.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Orduka. Tel. 677-700968.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-266877. Eva.

4.2. Langile bila

– Kamarera/o behar da Eibarren asteburuetarako. Bidali curriculum-a. 279 posta-kutxatila.
– Enkargatua behar da Elgoibarko taberna batean. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a: elgoibartaberna@outlook.es
– Nagusiak zaintzeko pertsona arduratsua behar da Eibarren goiz eta arratsalde. Ezinbestekoa profesionaltasun ziurtagiria edo geriatria laguntzaile titulazioa. Tel. 600-831698.
– Sukalde-laguntzailea behar da Eibarren asteburuetarako. Bidali curriculum-a. 279 posta-kutxatila.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Batxilergo, DBH eta Heziketa Zikloetako klase partikularak ematen ditut. Tel. 685-739709.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitate mailerako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Kuma zuria salgai, osagai guztiekin. Berria eta egoera onean. 90 euro. Tel. 687-675484.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

25. URTEURRENEKO EDIZIO BEREZIA

5.000€-RAINOKO DESKONTUA

MARTXOAN BAKARRIK



Hyundai dagoeneko 25 urte bete ditugu zure ondoan. Eta zure aldamenean egindako denboran, munduko 5 Fabrikatzaile onenetakoen artean kokatu gara, 3. Marka fidagarriena bihurtu eta hirutan Espainiako Urteko Autorik Onena izateaz gain. Hori ospatzeko, eta gure urteurrena amaitu baino lehen, 25. Urteurreneko Edizioa kaleratu dugu, aparteko ekipamendua eta 5.000€-rainoko deskontua dituen edizio berezia.

Hurbil zaitetz hilabete honetan zure kontzesionariora eta ospatu egizu gurekin.



OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
WWW.OARSOCAR.COM

ELGOIBAR

Olaso Polig., 17 943 74 14 80

OIARTZUN

Lintzirin Poligonoa, 1 943 49 48 30

BEASAIN

Errepide Nazionala, 1 943 80 40 54

IRUN

Juan Thalamas, 43 943 63 97 69



Hyundai Tucson Gama: CO₂ Emisioak (gr/km): 119-147 Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-6,3.
i20 Hyundai Berria Gama: CO₂ Emisioak (gr/km): 110-130. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,2-5,6.
i20 Hyundai Berria Gama: CO₂ Emisioak (gr/km): 97-102. Kontsumo mistoa (l/100km): 3,7-4,8.

25. Urteurreneko Hyundai i20 1.1 CRDi 75CV (55,2kW)-ari gehienezko deskontu aplikagarria. Sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta berria erositakoan Hyundai auto bat entregatzerakoan aplikagarria den Zare Hyundai Berritzaile Deskontua berria. Eskaintza 2017/03/31ra arte da baliozina. 3. marka fidagarriena, 2016ko JD POWER-en arabera. *Hyundai Motor España S.L.U.-k km mugarik gabeko 5 urteko Hyundai Berria Komertziala Hyundai Kontzesionarioaren Sare Ofizialean erositako autoetan soilik aplikatuko da, zerbitzu pasaportearik dion termino eta baldintzetan. Bialuzatutako modeloak: Tucson 25. Urteurrena, i20 25. Urteurrena, i20 25. Urteurrena. Bermearen eta eskaintzaren baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es helbidean galdetu.

35 urte^{tik}
góra LTZ ofizial gisa

Etxe-Lan

www.etxe-lan.com

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

MANTENTZE-LANAK / BERME-LUZAPENAK / ORDEZKO PIEZEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 89 97



OSTALARITZA

PROIEKTUAK, EKIPAMENDUAK ETA OSTALARITZAKO,
GARBITEGIETARAKO ETA HOTZ INDUSTRIALERAKO MAKINEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 12 30

Banataile Ofiziala



FAGOR INDUSTRIAL





el descanso y tú

Gaur egun zoragarria da atseden hartzeko!

bed's, atsedenerako lehenengo katea, Eibarrera dator

bed's dendetan erraztasunak emango dizkizugu. Horregatik daramatzagu 30 urtetik gora atsedeneko lehenengo markak eskaintzen, preziorik onenean



Eibarko bed's denda berriak markarik onenetan eskaintzak eta irekierako promozioak eskainiko dizkizu



Etor zaitetz Eibarko Bed's-era eta zure atsedenerako eskaintzarik onenak aurkituko dituzu:

bed's Eibar

Bista Eder, 6
943 539 997



KOLTXOIAK

OINARRIAK

BURUKOAK

OHE-JANTZIAK